

Hazien tramankuluak



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Fruitu sasoia da: gaztaina, hur, intxaur, ezkur, maspil.... Gure paisaietan ugarietak, hala ere, mahatsa eta sagarra. Baliatzen ditugun fruitu etxekotutakoez hitz egin da, alegia. Pentsatuko duzun bezala, hor, han eta hemen, denean, milioika fruitu sortzen ari dira etengabe. Fruitu horiek hazien bidaia-ontziak dira. Haziak hedatzeko eta ahalik eta urruneneko toki egokiren batera iristeko tramankuluak dira fruituak. Tramankulu horiek bidea emango diote hazien etorkizunari: animalien batek jan eta egunetara izango den beste lekuren batean botatzea helburu, usain, aho dasta, kolore eta abar aproposak garatuko ditu fruituak. Hai-zeak eraman beharko dituenak hegal, hego, luma edo jausgailua erantsiko dio haziari. Izan ere, hazia da dena. Denaren etorkizun guztia, sekula berdina izango ez dena. Hazia eman duen landare amak ez du ezagutuko bera bezalakorik, berria, eta hazia hori da, berri hori ama baino hobea izateko aukerak sortzea. Landare batek izugarritzko hazi pila eman dezake urtero, eta bakoitza landare aldaera berri baterako bidea da.

The Botany of Desire: A Plant's-Eye View of the World (Random House, 2001) gutxi gorabehera "Desiraren botanika: mun-



Goiloren (*Epilobium hirsutum*) haziak hegan egiteko tramankuluak prest, haizearen zain.

duari buruzko landareen ikuspuntu bat" liburu ederrean Michael Pollanek sagarrondoa aipatzen du (*Malus x domestica*), eta hari buruz honela dio: "Beste edozein ezaugarriren gainetik, sagarrondoren aldakortasun genetikoak —bere alde basati sahietsezinak— ematen dio ahala New Englanden, Zeelanda Berrian, Kazakhs-tanen edo Kalifornian, leku zeharo desberdinetan etxean bezala sentitzeko. Sagarrondoa edozein tokitara joanda ere, bere ondorengoek sagarra denari buruzko halako aldaera aukera proposatzen dute —sagar bakoitzeko gutxienez bost, arbola

bakoitzeko milaka—, eta horietako pare bat behinik ia behartuta dago fruitu arbolaren etxetzakoan aurrera egiteko behar diren ezaugarriak izateko".

Hau da, hazia, sagar bakoitzean bost bat, sagarrondo bakoitzean milaka, sagar mota berri bat sortzeko aukera da, eta, erraz nahasten denez, lur zeharo desberdinetara egokitze gaitasuna hartzen du.

Hurrena, hazi bat ahoratzen duzunean, jakizu: osorik badoa landare berribat izan daiteke; *Phaseolus vulgaris*, babarruna bezala kosk txikitzen baduzu aukera galdu bat. ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Hur zuhaitz bat dugu eta urtero ale mordoa izaten ditu, baina heldu ahala guztiak erortzen dira zulo txiki batekin, "hutsik", ustelduta... Zer izan daiteke? Sagarrondo eta aranen alboan dago.

Ana Zarandona (Etxebarria)

Kaixo Ana. Hurraren gurgurioa da, *Curculio nucum*. Hurra-

ren arazo handiena da. Intsektu txikia da. Negua har forman igarotzen du lurpean, udaberrian heldu bezala atera eta hur txikiak eta hosto eta kimu berriak jaten ditu. Maiatza eta iraila artean helduak ibiliko dira, arrautza berriak hur samurretan sartuko dituzte, bakoitzean bana. Haietan harra sortuko da eta hurra barrutik jango dute. Gero zulo bat egin eta aterako dira lurpera joateko, negua pasatzera. Lurpean hiru urte egon daitezke. Toki hezeak eta freskoak maite dituzte.

Ez da erraza borroka. Tratamenduak intsektua arrautzak jartzen dabilenean egin beharko lirakeke, ekologikoa: "Neem" olio + xaboa. Garai batean goizean goiz edo ilunabarrean, bero handienak joandakoan hur adarrak maindire zuri bat azpian jarrita astinzen ziren, gurgurioak bildu eta hiltzeko.

Adar artean laranjak erditik ebakita jarri eta bertan luze ari-zen omen dira zurruputzen, biltzeko aukera emanez...